

BERTAKO APOARMATUAK

Mehatxaturik daude habitataren deusezte, kutsadura eta espezie inbaditzaileen presentziaren ondorioz. Aipaturiko azken horrek iberiar populazio batzuen etorkizuna kolokan jarri dezake. Euskal Autonomia Erkidegoan bakanak eta eskasak direnez, dauzkagun ale guztiak babestu behar ditugu.



© Marc Franch

Emys orbicularis (Apoarmatu istilzalea)
Beraien kolorazioa marroia eta berde-beltzazkaren bitartekoa da puntu edo lerro horiekin. 20 zm neurtzera iristen da. Landaredia duten erreka zein urmael lohitsueta bizi dira.



Mauremys leprosa (Apoarmatu korrontazalea)
Beraien kolorazioa arre eta oliba bitartekoa da, burua eta lepoa, aldiz, gris-oliba lerro laranjekin. 21 zm neurtzera iristen da. Erreketan eta ur-bazterreko landaredia duten urmael lohitsueta bizi dira.



LEGEDIA. ZER JAKIN BEHAR DUGU...

1997. urtean Floridako apoarmatuaren inportazioak Europara debekatu ziren (338/97 [EE] Arautegia eta 2087/2001 [EE] Arautegia). Gainera naturan atzerriko animaliak askatzea debekaturik (Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legea) eta zigortua (Zigor Kodea 10/95 Lege Organikoa) dago.

NOLA ZAINDU MASKOTAK

Apoarmatuak gure artean urte asko bizi daitezkeenez, kontuan eduki behar dugu eroste hutsarekin erantzukizun handia onartzen dugula.


- **Naturan ez dira inoiz askatu behar.**
- Osasun arreta egokia eman baher zaie.
- Ontzi egokietan eduki behar dira, akuaterrarioetan.

NORA JO BEHAR DUZU ASKATU BAINO LEHEN

Ezinezkoa bazaigu gure apoarmatua behar den bezala zaintzea, edozein tokitan askatu beharrean, jar zaitezte harremanetan Gipuzkoako Foru Aldundiko basozainen emisorarekin, **943 000 420** telefonoan, aholkua jaso dezazuen.

Argazkiak: Aitziber Egaña-Callejo. Azaleko argazkia: Marc Franch

APOARMATU EXOTIKOAK



Maskota izatetik...

...espezie inbaditzaile izatera



ARANZADI donostia
zientzia elkarteak • sociedad de ciencias

HERPETOLOGIA behatokia
herpetology • herpetology



Donostiako Udalak
Ayuntamiento de San Sebastián




Euzko Jaurlaritzak
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

NOLA BEREIZI APOARMATU EXOTIKOAK

Trachemys scripta elegans
(Floridako apoarmatua
edo belarri gorriduna).
Ganbil itxurazko oskola
28 zm neurtzera
iritsi daiteke.



Trachemys scripta scripta (Belarri horiko
apoarmatua).
Ganbil itxurazko oskola
27 zm neurtzera
iritsi daiteke.

Trachemys scripta troostii (Cumberland
apoarmatua).
Ganbil itxurazko oskola
21 zm neurtzera
iritsi daiteke.



Trachemys ornata (Ornata
apoarmatua). Ganbil
itxurazko oskola 38 zm
neurtzera iritsi daiteke.

APOARMATU EXOTIKOAK.

INGURUMEN ARAZOA NOLA SORTZEN DA

70. hamarkadaren erdialdetik aurrera Estatu Batuetatik milaka belarri gorridun edo Floridako apoarmatu kume (*Trachemys scripta elegans*) inportatu dira European maskota bezala saltzeko. 80. eta 90. hamarkadan, euren salmenta asko zabaldu zen. Zoritxarrez, naturan denbora gutxian apoarmatu pila bat askatu ziren eta orduan arazoa sortu zen. Izan ere, hazten doazen heinean beraien beharizanak ere bai eta, ondorioz, leku handiagoa eta arreta gehiago eskatzen dute, etxean mantentzea zailagoa izaten delarik. Espezie batzuk 30 urte bizi eta 38 zm neurtzera iristen dira. Familiak apoarmatu kumea hantitzean "arazoz" ohartzen dira eta maiz hartzen den erabakia animalia putzu, urmael, urtegi edo ibairen batean askatzea da, gainera zuzena delakoan, "etxean bezain ondo biziko da bertan, hobe ez bada". Errealitatea aldiz, guztiz bestelakoa da, ekosistementzat mehatxu larria baitira.



KANPOKO APOARMATUEN INDARRA

Kanpoko apoarmatuek inbaditzeko gaitasun handia dute, habitat berrietara egokitze erakusten duten erraztasuna dela eta. Dieta zabala dute, jatun onak dira, kementsuak eta eraso-tzaileak dira eguzkia hartzeko leku egokienak lortzeko garaian, elikatzekoan eta abar. Hemen, beraien jatorrizko habitatatik urruti, arriskutsu bilakatzen dira, bertoko apoarmatuak zokoratu eta ekosisteman desorekak sortzen baitituzte. Anfibio, ornogabe eta landarediak pairatuko dituzte ondorioak, tokiko biodibertsitatea mehatxupean jarritz. Floridako apoarmatua, planeta osoan gehien hedatuta dauden 100 espezie inbaditzaileetariko bat da. Beraz, EZ ASKATU INOIZ naturan.



Trachemys emolli (Nikaraguar apoarmatua)
Oskola 37 zm neurtzera iritsi daiteke.



Pseudemys spp. (Cooter apoarmatua)
Ganbil itxurazko oskola 38 zm
neurtzera iritsi daiteke.



Graptemys pseudogeographica (Sasiapoarmatu
mapaduna). Oskol zerraduna du, arrak 15 zm
eta emeak 25 zm neurtzera iristen dira.